



2019ko OTSAILA

182

taxi kitto!

AITZIBER GARMENDIA
Gure Kasa-ko
perrexila



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuarta.
20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Maidar Aranberri,
Ana Aizpurua,
Ekhi Belar eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa

Maidar Aranberri eta
Ekhi Belar.

Maketazioa

Ana Aizpurua.

**Azaleko eta
elkarrizketako argazkia**
Mikel Martinez

Copyright-a
Txikitto!

Lege-gordailua
SS-1111/96



Gipuzkoako Foru Aldundia

● Zein da panda hartzaren kolmoa?
- Argazki bat ateratzea koloretan eta txuri-beltzean agertzea.



● Andereñoak galdetzen dio Jaimitori:
- Ia, Jaimito, zein astro da handiagoa, eguzkia ala ilargia?
- Ilargia, andereño, gauetz ateratzen delako.



● Zeinek pisatzen du gehiago, 3 kg-ko ume batek ala 3 kg-ko txori batek?
3 kg-ko txori batek, hiru kilo eta piku pisatzen duelako.

● Bazen behin herri bat hain zaharra, non ortzadarra txuri-beltzean zen.



● Nola esaten da mukizapia japonieraz?
- Tekitomokito



● Bazen behin gizon bat oso geldoa zela. Gosaltzera joan zen eta heldu zenerako bazkaltzeko ordua zen.




● Nola esaten da ambulategia japonieraz?
Osakidetza




● Ume batek haurdun dagoen amari:
- Amatxo, zer daukazu tripa barruan?
- Aitatxok oparitu didan umetxo bat, maitea.
Eta umeak aitari:
- Aitatxo, aitatxo!
Ez oparitu umerik amatxori, jan egiten ditu-eta!



- Ama, ama! Azterketa sorpresa egon da eskolan!
- Eta nola joan da?
- Ipar Poloan bezala.
- Nola?
- Zero azpitik.



Gurutzegrama



ANIMALIAK

1. ETXEETAN GEHEN DAGOEN ANIMALIA DA.
2. TXAKURREKIN BATZUTAN EZ DA ONDO ERAMATEN.
3. BAKEROCEN PEISKULA ASKOTAN AGERTZEN DA.
4. BASA-MORTUETAN EGOTEN DA.
5. UR ASPITZKODA.

Labirintoa



Gurutzegrama


11 fruita eta barazki: hauen izenak
 hieki: zopan aurkitu

Fruitak eta barazkiak:

- Tomatea
- Letxuga
- Sandia
- Banana
- Laranja
- Madaria
- Sagarra
- Piperra
- Patata
- Agurria
- Kalabazoa

E	N	M	A	D	A	R	I	A	R	U	T
K	I	J	A	N	G	E	H	H	H	O	Z
B	A	L	R	O	N	P	A	J	M	X	N
L	F	N	R	D	L	A	R	A	N	J	A
I	H	K	A	I	P	A	T	A	T	A	B
O	P	E	G	N	O	E	U	P	E	O	S
K	I	K	A	L	A	B	A	Z	I	N	A
A	P	F	S	G	D	B	K	L	J	I	N
L	E	T	X	U	G	A	N	Z	G	L	D
H	R	H	J	L	I	S	L	E	S	B	I
P	R	N	P	U	D	L	G	Z	P	O	A
O	A	Z	E	N	A	R	I	O	A	N	K

Labirintoa



Lehiaketa

7 desberdintasunak



Bidali erantzunak **martxoak 1** baino lehen
...eta kitto! Euskara Elkartea- Urkizu 11 . Eibar

Izen-abizenak.....

Adina..... Tel.



Maddalenek gustora hartu zituen opariak.

Aurreko hileko irabazlea, Maddalen Arrazola

Zorionak Maddalen! Aurreko aleko erantzunak bikain asmatu dituzu eta zozketan zeu irten zara irabazle. Ipuina eta ...eta kitto!-ko kamiseta zuretako! ZORIONAK txapeldun!

Aitziber Garmendia

Gure Kasa saiokoa aktorea



Aktore eta umorista gipuzkoar honek antzerkian, telebistan eta zineman egin du lan eta gaur egun Gure Kasa saioan azaltzen da Zuriñe izeneko neska gotikoaren paperean. Barre algarak eragiten dituen zaldibiarrek pozarren erantzun die Txikitto!-k egindako galderari.



- **Telebistako saio bat?**
Modern Family.
- **Oroitzen duzun umetako pelikula bat?**
Grease, mila aldiz ikusi dut.
- **Zein marrazki bizidun gustatzen zitzazizun?** Heidi.
- **Eta gaur egun?**
Ice Age, Inside out, Up, Asterix eta Obelix ...
- **Nor eramango zenuke irla batera?** Ama.
- **Eta nor ez?**
Matxista den edonor.
- **Umetako amets bat?**
Aktore izatea.
- **Eta orain duzun ametsa?**
Aktore izaten jarraitu ahal izatea beti.
- **Gehien gustatzen zaizun jakia?**
Tolosako babarrunak eta Zaldibiako mondejua.
- **Eta gutxien?**
Dena gustatzen zait.
- **Espagetiak tomatearekin ala gabe?**
Tomatearekin noski!

Izena: Aitziber
Abizena: Garmendia
Jaioterria: Zaldibia
Jaiotze-data: 1982-12-10



- **Sekula jantziko ez zenukeen arropa?**
Nire printzipioen kontra doan esaldi edo marrazkiren bat duen edozer gauza.
- **Eta zure armairuan falta ez dena?**
Bakeroak eta zapatillak.
- **Birziklatzen duzu?**
Bai noski.

- **Euskara osasuntsu dago?**
Asko dugu oraindik hobetzeko.
- **Zer egin gehiago erabiltzeko?**
Geure herriko hizkuntza dela sinetsi. Eta herriari zor diogun errespetua erakutsi.
- **Ametsetako oporrak non?**
Cubak txundituta utzi ninduen.
- **Nolakoa da zure egun perfektua?**
Iratzargailurik gabe esnatzen naizen egun horietako bat. Familiaz eta lagunez gozatzeko aukera ematen didan egun hori.
- **Abesti bat?**
Show must go on.
- **Itsasoa ala mendia?**
Biak, baina itzaletan beti.
- **Gazia ala gozoa?** Gazia.
- **Zerk pozten zaitu?** Nere iloba Izanek.
- **Zerk haserretu?** Zentsurak.
- **Kontatu txiste labur bat.**
Kartzelan batak besteari:
- Zu zergatik zaude hemen?
- Ez didatelako ateratzen uzten.



AMAÑA

Amañako LH5-eko ikasleek "Animaliak" proiektua garatu dute lehen hiruhilabetekoan. Proiektuari amaiera emateko landutako edukien aurkezpena egin zuten gurasoen aurrean. Argazkian, plastika arloan egindako lana: Tamaina errealean (6 metro) egindako lepo-luze bat. Zuek bai artistak!



ARRATEKO ANDRA MARI

Kaixo lagunok! Otsailean ere hainbat ekintza izan eta izango ditugu Arrateko Andra Mari ikastetxean: Otsailaren 4an, makilak hartu eta Santa Ageda koplak abesten ibili ginen auzoan zehar. Horretaz gain, eta urtero bezala, otsailaren 20an, irrati-saioekin ere hasi gara. Hor ari dira HH eta LH-ko ikasle eta irakasle guztiak lan eta lan, saio ezin politagoak prestatzen! Otsailaren 28an Aratosteak ospatuko ditugu, eta kalejiran Epaitegiko plazaraino jaitsiko gara; jada hasi gara euskal dantzak entsaiatzen. Martxoaren 5ean eta inauteriei amaiera emateko, gurasoek txokolatea prestatuko digute. Besterik gabe ondo pasa!



ITURBURU

Irtereen egutegiari heldu diote berriz ere Iturburuko ikasleek eta urtarrilaren bukaeran 1. mailako ikasleak Ekainberri ezagutzera hurbildu ziren Zestoaraino. Bertan, kobazuloaren erreplika ikusi ondoren, tailerretan antzinan animaliak hormetan nola margotzen zituzten ere ikasi zuten. Bestalde, 2. mailako ikasleak zientzialari bihurtu ziren eta Donostiako Zientzia Museoa ezagutzeko aukera izan zuten.



URKIZU

Urtarrilaren 25ean, Urkizu ikastetxeko 5 urteko haurrok udal liburutegia ezagutzera joan ginen. Ipuin bat ere kontatu ziguten. Bukatzeko, bazkidetza egiteko agiriarekin itzuli ginen guztiok eskolara. Otsailaren 4an, 3. eta 4. mailakoak, kalez kale ibili ziren Santa Ageda koplak abesten. Kanean zebiltzan lagunek harriduraz begiratzen zuten arren, txalo beroz eskertu zuten kantaldia. Otsailaren 8an, "Ezetx asmatu" lehiaketaren edizio berri bat amaitu genuen. Bukaera ekitaldian ikasleak asko dibertitu ziren eta irabazlea pozik joan zen etxera, opariz beteta.



ALDATZE

Aldatzeko 3. mailako ikasleek matematikan gorputz geometrikoak landu dituzte eta horrekin lotuta, taldeka, eraikin desberdinak sortu dituzte materialak berrerabilita. Oso proiektu dibertigarria eta polita izan da!



SAN ANDRES

Otsailaren 4an, San Andreseko 5. eta 6. mailako ikasleak herriko kaleetan zehar ibili ziren **Santa Agedako koplak abesten. Ze ondo pasa zuten! Hurrengo urtean berriro!**



LA SALLE

Urtarrilaren 14an La Salleko 4. mailakoak zinemara joan ziren Asterix eta Obelix pelikula ikustera. 21etik-25era LH-n kontsumobideko tailerrak landu genituen: Uraren kontsumoa, bide-jolasak, nola egin ogia etab. 2. zikloa Donostiako orkestra sinfonikora joan zen. Bertan musikaren istorioa ikasi zuten musikalen bitartez eta orkestra sinfonikoaren eraikuntza ezagutzeko aukera ere izan zuten. Azkenik, 28ko astean, Bakearen astea izan genuen eta ekintza desberdinak egin genituen, bai bakearen, bai buling-aren inguruan. Ostiralean ospakizuna egin genuen familiarekin batera eta "Baloreak" kanta dantzatzuz bukatu genuen eguna.





sukal-saltsan

Pasta eta gazta

Osagaiak:

- Pasta pakete bat
- Gurina
- Irina
- Gatza
- Piperbeltza
- Esne lurrundua
- Ura
- Arto-krema
- Piper gorria
- Cheddar gazta

Nola egin:

- 1.- Labea 220°-tan berotu eta labean sartzeko ontzia koipetu.
- 2.- Pasta egosi eta albo batera utzi.
- 3.- Gurina urtu, eta irina, gatza eta piperbeltza gehitu ondo nahastu arte. Poliki-poliki esne lurrundua eta ura gehitu. Nahastu irakin arte eta, gero, sutik kendu.



- 4.- Saltsa pixka bat aurrez prestatutako ontzian igurtzi eta, ondoren, pastarekin bete, saltsa gehiago gehitu, arto-krema pixka bat bota, eta piperrak ere. Birrindutako cheddar gazta gehitu. Pausua errepikatu geratzen diren osagaiekin eta gazta bota gaineratik. Ontzia aluminio-paperarekin estali.
- 5.- Labean sartu 20 minutuz. Aluminio-papera kendu eta bost minutu gehiagoz berotu.



Fruitu freskoen entsalada

Errezeta koloretsu eta freskoa proposatzen dizuegu. Eta gainera, oso erraza! Fruitu freskoak (mahatsak, mangoa, marrubiak, kiwia eta masustak), lima-zukua, sagar-zukua eta menta-hostoak besterik ez ditugu behar. Lehenik eta behin fruituak moztu behar ditugu eta katilu handi batera bota. Lima- eta sagar-zukuak eta menta-hostoak gehitu, eta fruitu guztia ezteki nahastu. Amaitzeko, hozkailuan sartu.



ni bai artista!

Saski txikiak

Zure gauzak ordenatuta eduki eta ez galtzeko eskulan aproposa proposatzen dizuegu.

Materiala:

- Koloretako feltroen plaka karratuak
- Katilu borobila
- Guraizeak
- Itsasgarria
- Klipak



Pausoak:

- 1.- Katilua feltroaren gainean jarri borobil bat moztan laguntzeko. Katilua handia bada, saskia handia izango da.
- 2.- Katilua baino txikiagoa den beste elementu borobil batekin beste zirkulu bat egin.
- 3.- Feltroa zortzi zatitan mozteko lerroak marraztu erditik kanporantz, eguzki-izpiak izango balira bezala.
- 4.- Lerroak marraztuta daudenean moztu itzazu erdiko zirkulura iritsi arte. Ertzak elkarrekin tolestu eta itsatsi.
- 5.- Klip bana jarri tolestura bakoitzean eta lehortzen utzi.



Animali itxurako marionetak

Paperean animalien silueta marraztu eta, ondoren, feltro gainean jarri. Txuria erabili hartzarentzat, beltza pinguinoarentzat eta marroia elur-oreinarentzat. Animalia bakoitzeko bi silueta dituzunean hari batekin batu itzazu. Hartza dekoratzeko begiak eta sudurra egin botoi txikiekin, eta feltroa erabili besoak egiteko. Ertz bakoitzean hari beltza josi atzaparrak egiteko. Elur-oreinari adarrak egiteko kolore marroi ilunagoa duen feltro bati zati txikiak moztu eta buruan itsatsi. Eta feltro zuriekin mototsak egin. Pinguinoa egiteko, azkenik, feltro beltzaz gain zuria ere beharko duzu, barrualdean itsasteko. Begiak eta sudurra egin, eta feltro beltz gehiago erabili hegoak egiteko.



AMAÑAKO IKASTETXEKO 5. MAILAKO IKASLEAK
JOSE RAMON SOROIZEN “TRAMANKULUAK”
ANTZEZLANA IKUSTEN EGON DIRA PORTALEA KULTUR
ETXEAN. SAIOAREKIN IRUDIMENAREN ETA IPUINEN
SORMENAREN INGURUAN UNE ATSEGINAK PASATU
ZITUZTEN, EUREN HITZETAN ANTZEMAN DEZAKEGUN
MODUAN.



Zer ikusi eta ikasi zenuten “Tramankuluak” saioarekin eta zer gustatu zaizue gehien?



Saad
Amezian,
10 urte

Tramankulu asko agertzen dira istorioetan, liburuak, koadernoak, bolatxoak... Eta Jose Ramonek istorioak kontatu zizkigun. Batzuk benetazkoak zirela pentsatzen dut, baina beste batzuk ezin dira benetan gertatu, adibidez liburu baten barruan bolatxo batzuk agertzea. Gehien gustatu zitzaidan istorioa bere itzalari beldurra zion mutilarena izan zen.



Amina
Gourmat,
11 urte

Jose Ramonek istorioak kontatu zizkigun eta asko ikasi dugu. Gehien gustatu zaidana izan da persona batzuk sokak erabiliz komunikatzen direla, soka biribiltzeko moduaren arabera letra bat edo beste osatzen da. Baina istorio batzuk ez nituen sinistu, adibidez esan zigunean pirata-ontzi batean ibili zela eta...



Luna
Campos,
11 urte

Liburu batetik bolatxo batzuk atera zituen. Bolatxo horiek liburu-orriekin egindakoak ziren eta bertan hitz batzuk agertzen dira, gure bolatxoan, adibidez, “erlojua”, “opari”, eta “behar” hitzak agertzen dira. Hiru berba aukeratu behar ditugu eta gelan istorio bat asmatu. Sokena ere asko gustatu zitzaidan, mariñelek egiten dituzten korapiloekin letrak eta zenbakiak osatzen dira.




Mouad
El Aissati,
10 urte

Jose Ramonek eman zigun bolatik 3 berba aukeratu behar ditugu eta gelan, denok batera, istorio bat asmatu behar dugu. Idazle onek horrela egiten dutela esan zigun. Sokena ere asko gustatu zitzaidan. Beste eskoletako umeak “Tramankuluak” ikustera joateko animatuko nituzke, oso dibertigarria da-eta.



Iosu
Garcia,
10 urte

Jose Ramonek kontatu zigun behin hondartzan zihoala eta liburu bat aurkitu zuela. Bere gustoko hiru orri kentzea pentsatu zuen eta horrekin bolatxo bat egitea. Hori gustatu zitzaidan gehien. Bolatxo horietako bat gelan dugu eta horrekin osatuko dugu denon artean istorio bat.



Gorka
Poveda,
10 urte

Interesgarriena sokena iruditu zitzaidan. Pertsona batzuk horrela komunikatzen dira eta harrigarria da. Gure gelan dugun bolatxoaren hitzak Alibabaren istorioan sartuko ditugu, eta moztarotzu ere egingo gara. Bertsoaritzan landuko dugu istorioa eta gero helbide bat eman zigun, bertara bidaltzeko.



Gaiztoak 6 urtetik aurrera

Otso bat, haur-jale bat eta sorgin bat. Azkenean gu gara istorioko protagonistak! Zatoz, hurbil zaitez, ez izan beldurrik... Barnera zaitez oihan ilunean eta gure sekretu guztiak erakutsiko dizkizugu. Ausartzen zara? Debekatua printze eta ehiztarientzat.



Gu gara marimatrakak 8 urtetik aurrera

Liburu bilduma berria: Marimatrakak! Bi ahizpa bihurrien abentura dibertigarria. Gu gara marimatrakak! Jiji eta aja barre eta zalaparta. Neska pare aparta.



Emiliren desabenturak 10 urtetik aurrera

Batzuentzat dibertigarria da Emili, besteentzat, gafea. Nahiz eta beldurak airean ibili zenbaitetan, gehienetan barrez lehertzen amaitzen dute bere lagunek. Emili dibertigarria ala gafea den jakiteko, bere desabenturak irakurtzea, onena.

Azeriak, oiloak eta sugeak (La Salle ikastetxea)

ZELAN JOLASTU?

- Hiru talde egin behar dira: azeriak, oiloak eta sugeak.
- Talde bakoitzak bere etxea izango du.
- Azeriek oiloak harrapatu behar dituzte, oiloek sugeak, eta sugeek azeriak.
- Talde bat libre gelditzen denean edo denbora pasa ondoren irakasleak txistuak jotzen duenean amaitzen da jolasa.



jolastokixan jolasian

BIDEOA:

<https://etakitto.eus/txikitto/la-salle-isasi-jolasa.html>



otsailak 23

Koko-dantzak eta koko-eskea

Kezka dantza taldea

- 8:30. Merkatu plazan lehen agerraldia
- 9:00-16:00. Otaola-kifarra bailaran zehar koko-dantzan eta koko-eskean
- 19:00-21:00, Koko-dantzak Eibarko erdiguneko kaleetan, Anbulategiko parketik abiatu eta Zuloagatarren, Toribio Etxebarria, Untzaga eta Fermin Calbetón kaleetan. San Andres eliza atarian bukaera emango diote koko-marruen kalejirari.

otsailak 28

EGUEN ZURI

- 15:15. eskoletako taldeen kalejirak.
- 17:00. Urkizun hasita eta Untzagaraino, Jainaga eta Narbaizarekin kalejira.
- 17:00. Untzagan, dantzaldia, LISKER taldearen eskutik
- 17:00-19:00. Untzaga Plazan, tailerrak: "ZIRKUA" karetak eta makillajea ASTIXAren eskutik

martxoak 1

ARATOSTE BARIXAKUA

- 20:00. Urkizun hasita Untzagaraino, KALDEREROEN kalejira. Parte-hartzaileak: Kezka Dantza Taldea, Ustekabe fanfarrea, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilariak, Untzagako nagusien egoitzako abesbatza, Kaleetan kantuz eta Jainagaren trikitixa eskola.
- 20:30. Untzaga Plazan, Kaldereroen abestiak eta dantzak.
- 21:00. Untzaga Plazan, Aratosteetako pregoia. ...eta kitto! eta Kezka Dantza Taldeak antolatuta.
- 23:30. Untzaga Plazan, "Los chivatos de Ana Frank" taldearen kontzertua.



martxoak 2

ARATOSTE ZAPATUA

- 12:00. animazioa Aratosteetako karpan eta pintxopotea, San Kristobalگو Jai Batzordearekin girotuta.
- 12:30 – 14:00. Untzagan, Rockalean emanaldia.
- 12:30 – 14:30. Photocall-a Untzagako plazan.
- 12:30. Aratosteetako koadrilen kalejira. Ibilbidea: Untzaga, Calbeton, Bidebarrieta, Urkizu, Arragueta, Errebal, Toribio Etxebarria, Untzaga. Kalejira Ustekabe fanfarrearekin.
- 18:00. Mozorro lehiaketa, Galiziako Etxean.
- 18:00 – 20:00. Untzogatik hasita, Brass Band kalejira.
- 18:30 - 21:30. umeendako berbena Untzagako karpan ALAIKI taldearekin
- 19:00. Aratosteetako koadrilen kalejira, taberna eta kartel-lehiaketan sari-banaketa Untzagako karpan.
- 19:00 – 21:00. Photocall-a Untzaga plazan.
- 23:30 - 02:00. Dantzaldia ALAIKI taldearen eskutik.



martxoak 3

ARATOSTE DOMEKA

- 11:00. Aratosteetako kalejira, Usartza Txistulari Bandaren eskutik.
- 17:00. Untzaga plazan, umeendako Playback lehiaketa LH 5-6. mailetakoko ikasleentzat, DJ ARNOrekin , ...eta kitto!-k antolatuta.



martxoak 5

ARATOSTE MARTITZENA

- 17:00 -18:30, Untzaga plazan, umeendako jolasak Astixaren eskutik.
- 18:30. Sardinaren entieru txikia trikitilariz lagundua.
- 19:00. umeendako diskoteka Untzagako karpan Arima Cool Tour taldearekin



ipuina

Txanogorritxu 2.0

Bazen behin Txanogorritxu izeneko neskatxa bat Eibarren bizi zena. Bi ama zituen, Rosa eta Mari.

Egun polit batean Rosak bere umeari esan zion:

-Txanogorritxu etorri meriendatzera!

- Txorizo-bokadilloa prest dago!- Marik.

- Puajj. Txorizoa? Ez ez, prestatu txokolatzeko bokadilloa. Gainera orain telebista ikusten ari naiz ... - Txanogorritxuk.

- Etorri oraintxe bertan!! – Rosak.

- Edo zigortu egingo zaitugu!!- Marik.

- Ja, ja eta ja. Amonaren etxera noa, berak nahi dudana guztia egiten dit beti.- Txanogorritxuk.

Orduan, Txanogorritxu, bere amak agurtu gabe, amonaren etxeruntz abiatu zen, haserre bizian.

Txanogorritxu dut izena.

amonaren etxera noa, txokolatea jaaaateeeera!

Basoan sartu eta ehiztari batekin eta bere txakurrekin topo egin zuen:

- Arratsaldeon txanogorritxu. Nora zoaz?

- Zuri zer inporta zaizu!!

- Kontuz basoan, basoa arriskutsua da. Otso maltzur bat dago bertan. Nire txakurrari buztana jan dio.

- Guau guau guau, nire buztan polita...guau guau guau. Orain nire lagun guztiek barre egingo didate. Guau guau guau...

- Relaaaax ehiztari jauna.

Neskatilla lotsagabeak kasurik egin gabe bidea jarraitu zuen. Basotik zihoala, ogi koskor batzuk aurkitu zituen lurrean. Eta banaka-banaka jaten hasi zen.

Pixkat aurrerago, neskato eta mutiko batekin topo egin zuen.

- Zer zabilzate zuek hemen?- galdetu zuen lotsagabekeriz.

- Ni Hansel naiz, eta hau nire arreba Gretel. Gure gurasoek basoan utzi gaituzte bertan galtzeko.

- Baina gu oso azkarrak gara eta ogi koskorak utzi



ditugu bidean etxeko bidea zein den jakiteko.

Txanogorritxuk ahoa estali eta gorri-gorri jarri zen.

- Segi segi. Zorte on!!

- Neskatoak bidean aurrera jarraitu zuen eta otsoarekin topo egin zuen:

- Kaixo neskatxa, zer egiten du zu moduko neska batek basoaren erdian? Basoa arriskutsua da.

- Utzi ni pakean, bestela emango dizudan zaplastekoarekin zure aginak kalejiran aterako dira.

- Zuk bezalako neska pinpirin batek, ni bezalako otso sendo bati joko diola?

- Ez al didazu entzun?

Plis plas eta otsoaren aginak kalejiran atera ziren.

- Auuuuuuu. Zelako mina!!

- Orain ulertu duzu?

- Zer?

Plis plas eta gainontzeko aginak danborradan atera ziren.

Auuu... Zelako mina!!!

Txanogorritxu amonaren etxera heldu zen.

Tok tok tok. Jo zuen atea.

Amonak atea ireki zion.

- Zer nahi duzu orain nire sorgintxo maitea?

- Txokolatzeko bokadilloa eta txokolatzeko izozkia. Ez nintzen zu bisitatzerako etorriko!

- Niri ez hitz egin horrela!

- Nik nahi dudana moduan hitz egiten dut.

- Zuri hiru gauza falta zaizkizu: bat, disziplina, bi, disziplina eta hiru...dis zi pli na!!

Kanga, amonak atea itxi zuen eta txanogorritxu basoaren erdian merienda gabe gelditu zuen.

ETA TXANOGORRITXUK ERRESPELUA JOKATU BEHAR ZUELA IKASI ZUEN.

J.A. MOGEL IKASTOLAKO 5.C-KO IKASLEAK



zu margolari